

**Hego Euskal Herriko Udal Irratiak, eredu baten porrota**  
(izenburua ingelesez)

Arantza Gutierrez Paz  
Irakasle agregatua. UPV-EHU  
mirenarantza.gutierrez@ehu.es

Hitz gakoak: Mikro-komunikazio, Meso-komunikazio, Udal irradi, Tokikotasuna, porrot

1970ko hamarkadaren amaieran, Katalunian hasitako fenomeno bat hedatu zen espainiar Estatuan zehar, tokian tokiko irratiaren sorrera alegia. Eredu ezberdinak aukeratuta, tokian tokiko hedabide horien helburua “hiritarren eta herri-erakundearen adierazpidea izatea zen. Ildo horretan, hedabide-sistemaren demokratizazio eta deszentralizazioaren aldeko lana egin nahi zuten” (Domingo, Guimera et al., 2002). Halaber, Moragas eta Corominas-ek (1988) diotenez, hedabide horiek paper garrantzitsu bat jo zuten hizkuntza-normalizazioaren eta kultur propioaren sustatze-prozesuan Katalunian.

Euskal Herriko lehenengo udal Irratia Zornotzakoa izan zen; 1981an hasi zen emititzen eta sustatzaileen asmoa herritarren bozgorailua izatea zen. Informazioaren oinarritzen zen programazioa eta euskarak ez zuen leku handirik programazioan. Zornotzarrari beste irrati batzuek jarraitu zioten Hego Euskal Herrian zehar, hala ere, mugimenduak ez zuen Estatuko beste tokietan hartutako bultzada hartzen euskal herrietan, zeinetan irrati askeak betetzen zuten udal komunikabideen papera.

Irratietatik garapen falta legalizazioaren ezari leporatu arren, 1991ko Udal Irratiaren legean oinarrituriko Nafarroako Gobernuak 1992an eta Eusko Jaurlaritzak 1994ean argitaraturiko dekretuek, ordea, ez zituzten emaitza asko ekarri, eta abian ziren udal irrati gutxi baliatu ziren legeztatze aukeraz, baldintza betegaitzak zirela argudiatuz. Azpimarratzekoa da urte horietan baimen-eskaera gehiago egon zirela Nafarroan, EAEn baino, eta foru-komunitatean euskara-elkarteek bultzatu zutela nagusiki udal irrati-egitasmoak Iparreko herrietan.

Komunikazio honetan aztertzen da porrot horren zergatiak, hau da, zergatik udal irratiaren ereduak –informazio lokala, hizkuntza propioa eta bertatik bertakoa egindako programazioan oinarrituta- ez du lortu Hego Euskal Herrian estatuko beste tokietan – Katalunian eta Galizian bereziki- izandako garapena. Lau hipotesi nagusitan oinarrituriko azterketaren emaitzak eskainiko dira hemen: a) euskararen eta hizkuntza-normalizazioaren tresna izan ordez, politikoen mezuak zabaltzeko hedabideak izatearena; b) legeak ezarritako ereduaren malgutasun-falta eta baldintzak betetzeko gaitasun-falta; c) meso-komunikazio edo tokian tokiko informazioaren funtzioa beste irrati batzuek –pribatuek eta sozialek bereziki- hartu izana eta d) programazio propioa lantzeko gaitasun-eza.

## 1. Eremu teorikoa

### *Makro eta mikro-komunikazioa*

Komunikazio teorietan historikoki lau komunikazio-eremu nagusi sailkatu dira, irratian ere aplikagarriak direnak:

Megakomunikazioa: estatuez haratago, nazioarte mailako esparruei dagokie.

Makrokomunikazioa; estatu edo nazioaren eremuari dagokio. Euskal Herrian deskonexiorik ez duten espainiar eta frantziar talde handiak sailkatzen dira honen barruan.

Mesokomunikazioa; eskualde, herrialde, erregio edo autonomia-mailako eremuei dagokien eremua. Horren barruan sartuko genituzke komunikabide publiko autonomikoak eta euskal kate gehienak.

Mikrokomunikazioa: hurbilen dauden komunikazio-eremuei dagokie, auzoa edo udalerrria, alegia; horren barruan sailkatuko genituzke udal irratia, baita Euskal Herrian dauden irrati aske edo komunitario asko ere.

Komunikazio honen ikerketa-esparrua mikrokomunikazioan datza; udal irratia tokioan tokiko komunikazio-tresnak baitira, haien hedadura-eremua herria, hiria edo horren zati bat (auzoa) baita.

### *Udal Irratiak: definizioa eta funtzioak*

Udalaren edo tokiko administrazioaren ondasuna diren eta hedadura-eremu lokala duten irratia dira udal irratia. Normalean udal instalazioetan kokatzen dira eta udal aurrekontuetatik diru-tarte bat jasotzen du gastuak ordaintzeko. Kudeaketari dagokionez, udalak berak kudea dezake irratia udal sail baten ardurapean edo espresuki sorturiko erakunde autonomo baten bidez. Era berean, irratia kudeaketa kultur elkarte edo enpresa baten eskuetan utzi ahal du udalak. Emititzeko baimena, berriz, udalarena da eta ezin dio beste inori utzi. Hala ere, esan dugun moduan, badaude lizentziarik gabe emititzen duten udal irratia.

Udal irratia komunikabide publikoak diren heinean ezaugarri komun batzuk dituzte: beren estatutuetan aniztasun erlijioso, politiko, soziala eta kulturala bermatzeaz gain, giza talde guztien parte hartzeko eskubidea jaso behar dute. Era berean, informazioak zuzentzeko eskubidea espresuki azaldu behar dute, gizabanakoen eskubideen berme moduan. Horretaz gainera, umeak eta gazteak babestu beharra agertzen da estatutuetan, eta baita sistema parlamentarioaren oinarrian dauden eskubide demokratikoak ere.

Era berean, komunikabidearen kontrola udal bilkuraren eskuetan uzten zuen legegileak; hots, udal-erakunde legegilean zegoen erabakitze ahalmena, eta ez gobernu-organoetan, aniztasun informatiboa zabaltzen eta adierazpen-askatasuna bermatzen zelakoan<sup>1</sup>.

Berezitasunei dagokienez, herritarrengandiko hurbiltasuna da azpimarratzekoa. Udala biztanleengandik gertuen dagoen instituzioa den bezalaxe, udal irratien oinarrian herriko bizitzaren susperketa egon beharko luke. Horregatik, herritarren zerbitzurako emisorak izan beharko lirarteke udal irratia, bertako taldeei eta biztanleei irekia. Hala ere, kontrakoa gertatzen da askotan, batez ere, udalaren kudeaketa zuzena nabaria den irratietan; goitik beherako egitura batean oinarrituta, informazio instituzionala besterik ez

<sup>1</sup> Ibidem: “(...) la pretensión última es la de facilitar a los ciudadanos unos medios de comunicación radiodifundidos de carácter local que amplíen el marco de la pluralidad informativa, garantizando al mismo tiempo la libertad de expresión reconocida y amparada en nuestra Constitución”.

dute eskaintzen. Hauteskunde kanpainetan baino ez baitago araututa udal taldeek izan beharreko tartea.

### *Metodologia eta iturriak*

Ez da erraza Hego Euskal Herrian dauden udal irratien errolda osoa egitea; Jaurlaritzan edo Nafarroako Gobernuan jotzen badugu, hor agertzen diren udal irratien zerrendak eta existitzen direnak ez datoz bat. Baimen administratiboa izatea ala ez izatea ere hurbilketa egitera laguntzen gaitu, baina ez digu mapa osoa argitzen, egon baitaude lizentziarik gabe emititzen dute udal irratia –esaterako Oiartzun Irratia edo Itsuki-, baita lizentzia eskuratu arren, irratirik kudeatzen ez duten udalak ere –Agurain edo Argentona kasu-. Beste kasu batzuetan, urteetan izan diren irratiek eten dituzte emanaldiak, hau da adibidez Elorrioko Anboto irratia kasua, eta gaur egun, ez dira existitzen.

Beraz, lehenengo erroldatzea egiteko orduan, buletin ofizialetan argitaraturiko baimen administratibotik abiatuta haratago joan gara udal irratien mapa osatzeko orduan. Horretaz gainera, irratia zuzeneko harremana (pertsonala edo e-postaren bidez) lagundu digu irratiei buruzko informazioa biltzen. Era berean, landa-lan hau burutzeko irratien webguneak, hedabideetan argitaraturiko albisteak eta zuzeneko ezagutzak izan dira beste bide batzuk.

Aurreko lanei buruz, esan beharra dago, ikertzaileak egindako aurreko lanetan zein Maria Teresa Santosek (2003) edo Amoedo Casasisek (1999) edo Albillo Torresek (1995) egindakoetan oinarritu dela abiatzeko, oso lan gutxi egiten baitira Euskal Herrian tokian tokiko irratiei buruz, eta horiek ez dute Katalunian edo Andaluzian duten garrantzia mugimendu moduan eta, ondorioz, ikerketa-objektu gisa; aipaturiko bi komunitateetan, aldiz, asko dira udal irratien inguruan egindako ikerketak eta bietan tokiko komunikazioaren behatokiak existitzen dira.

## **2. Udal irratien sorrera Hego Euskal Herrian**

Euskal Herriko lehenengo udal Irratia Zornotzakoa izan zen; 1981ean *Euskararen Astea* behin behineko emanaldiak eskaini ondoren, 1983an hasi zen jarraitutako programazioa ematen, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko ikasleek bultzatuta<sup>2</sup>.

Dena den 1980ko hamarkadan sorturiko tokiko irratien artean mota askotakoak aurkitzen ditugu: udalarenak, askeak, elkartekoak edo/eta komertzialak<sup>3</sup>. Tokian tokiko sortzen ari ziren komunikabide txiki hauen iraupena bermatzeko, bultzatzaileek askotan udaletxera jotzen zuten babes bila, eta horrek toki bat, diru-laguntza edo/eta argi-indarra edo alokairuaren ordainketa egiten zuen, loturirik gabeko harreman batean. Oso udal gutxi, ordea, berea egin zuten irratia beharra eta ez zuten udal komunikabiderik sortu. Horren froga da 1987an Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari eskatutako baimenen kopuru urria. Berango, Gorniz, Loiu, Erandio, Larrabetzu, Ondarroa, Ermua, Leioa, Sondika, Getxo eta Lezamako Udalek eta Durangoko Mankomunitateak soilik eskatu zuten lizentzia; eta horietatik soilik hiruk garatu zuten irati-proiekturen bat; besteenak bidean geratu zirela, Mungian, Gatikan, Portugaleten edo Basaurin sortzen ari zirenak bezalaxe.

Udal irratien legeak egoera hobetuko zuelakoan ziren mugimenduaren bultzatzaileak.

Estatu espainiarreko Udal irratien Koordinadorak urteetan eskatu eta gero, Soinuzko Irrati Hedapenaren Udal Irratien Antolaketa eta Kontrolari buruzko legea onartu

<sup>2</sup> Garai horretan fakultatearen izena “Informazio Zientzien Fakultatea” zen.

<sup>3</sup> Tokiko irati batzuek komertzial moduan emititzeko baimena lortu zuten Jaurlaritzak 1986an eta 1989an zabaldutako lehiaketetan; bitartean, zenbaitek udal babesa jaso zuten pirata-egoeran ego narren.

zuen Madrilgo gobernuak 1991n. Lege horrek *de facto* zegoen egoera arautu eta ordenatzeko helburua zuen. Hain zuzen ere, 1980ko hamarkadan estatuan zehar sortu ziren tokiko irriti askoren egoera legeztatzea etorri zen arau berria, batez ere irriti horiek indar handia zuten tokietan, Andaluzian, Katalunian eta Galizian, alegia. Esan bezala, Hego Euskal Herrian mugimendua bultzatuko zuelako itxaropena zuten batzuek.

Legea orokorregia zen eta komunikabide publikoen oinarriak azaltzera mugatzen zen: informazioen objektibotasun, inpartzialitate eta egiantzekotasuna; informazioen eta iritzien arteko bereizketa eta horiek adierazteko askatasuna, aniztasun politiko, erlijioso, sozial, kultural eta linguistikoaren errespetua zein pertsonen ohore, intimotasun eta norberaren irudiaren errespetua eta, oro har, hiritarren eskubide eta askatasunen errespetua eta bereziki, gazteen, umeen eta berdintasunaren balioen defentsa.

Bi hilabete batzuk geroago, eta legea garatzeko, 1992ko urriaren 1eko 1973/1992 Errege Dekretua argitaratu zuen BOE delakoak; bertan ezartzen zen Udal irritiak Maiztasun Modulatuak 107 MHz-etatik 107,9 MHz-etara bitarteko tartean kokatu behar zirela, salbuespen-egoera batzuetan izan ezik.

Aipaturiko lege eta dekretu horietan oinarrituta, Nafarroako Gobernuak herrialdeko udal irritiak arautzeko dekretu bat<sup>4</sup> onartu zuen 1992ko abenduan; Jaurleariak, aldiz, 1994an<sup>5</sup>.

Dekretu horiek indarrean jartzeak, ordea, ez zuen lehendik ahula zen mugimendua indartu. Are gehiago, ezarritako bete beharreko baldintzak gogorak zirela eta, irriti bat muntatzeko asmoa zuten udal batzuek atzera egin zuten, horretarako gaitasunik izango ez zutelakoan. Soilik hiru udalek bide legaletik jo eta baimena lortu zuten 1997ko abenduan: Arrasate, Oñati, Gipuzkoan, eta Getxokoak, Bizkaian, alegia.

Patxi Montero Arrasate Irritiaren sortzailearen ustez, legea oso mugatzailea zen, eta horrek ez zuen udal irritiak sortzen lagundu, ezta zeudenak bultzatu ere; era berean, bere ustez, ez zegoen bat ere argi zein zen udal irriti horien papera eta etorkizuna (Montero, 1998).

### 3. Udal Irritiak gaur egun

Hasieratik oso gutxi izan ziren EAEn abian jarritako irritiak, eta are gutxiago lizentzia eskuratu zutenak (esan bezala, 1998an soilik hiruk zeukaten emititzeko baimena); horrek ez du esan nahi auzo- eta herri-irritirik ez zegoenik, baizik eta baztuek aske moduan emititzea hautatu zutela eta beste batzuek, legeak eta dekretuak ezarritako oztopoei aurre egin ezinik, ez legalizatzea erabaki zutela. Kasu askotan, udalak sostengua – lokala eta gastuen ordainketa bereziki- emateko prest zegoen arren, ez zuen hain argi baimena eskuratzeko izapide administratiborik egin nahi zuenik. Hasierako irriti horiek oraindik martxan ditugu, esaterako Galdakaoko Mozoilo, Bermeoko Itsuki edo Idiazabalgo Zirika, eta batek ere ez du emititzeko lizentziarik, udal egoitzetatik emititu arren. Bidean geratu ziren Mungian, Laukizen, Gatican, Santurtzin edo Erreterian, batzuk aipatzearen, bultzaturiko proiektuak udal irriti bat izateko asmoz.

Nafarroan, berriz, udal irriti gehienak 1991eko legearen ondoren sortu ziren, Berriozarkoa izan ezik; azken hau existitzen zen Zartako irriti asketik jaio zen legalitatean kokatzeko asmoz. Beleixe, Aralar, Irati eta 2012aren hasieran itxi duen Etxarriko Esan Erran irratiek, aldiz, euskara bultzatzeko jaiotako elkarten eskuetatik sortu ziren.

<sup>4</sup> NAO, 1992ko abenduaren 21eko 431/1992 Foru-dekretua.

<sup>5</sup> EHAA (1994). “Dekretua, martxoaren 22koa, Euskal Autonomi Elkartearen Udal Erakundeei frekuentzia modulatuak udal irriti-zerbitzu publikorako baimena emateko modua arautzen duena”, 94065, 3921.

	Herria	Diala	Sorrera-urtea	Web
<i>Aralar Irratia</i>	Lekunberri	107.1 MHz.	1991	ez
<i>Arrasate Irratia</i>	Arrasate	107.7 MHz.	1994	<a href="http://www.goiena.com/irratia">http://www.goiena.com/irratia</a>
<i>Begi FM Balmaseda Irratia</i>	Balmaseda	107.9 MHz.	2009	<a href="http://www.begifm.com/">http://www.begifm.com/</a>
<i>Beleixe Irratia</i>	Etxarri Aranatz	107.0 MHz.	1999	<a href="http://www.guaixe.net/Bierrik.asp?IdGuaixe=26">http://www.guaixe.net/Bierrik.asp?IdGuaixe=26</a>
<i>Berriozar Irratia</i>	Berriozar	100.8 Mhz.	1988 <sup>6</sup>	<a href="http://eguzkiplaza.net/">http://eguzkiplaza.net/</a>
<i>Durango Irratia</i>	Durango	107,8 MHz.	1988	<a href="http://www.durango-udala.net">http://www.durango-udala.net</a>
<i>Enkarterri Irratia</i>	Zalla Turtzioz Karrantza	107,4 MHz, 107,2 MHz. 107,8 MHz.	2003	<a href="http://eirratia.podcast.es/podcast.php?editor=eirratia">http://eirratia.podcast.es/podcast.php?editor=eirratia</a>
<i>Getxo Irratia</i>	Getxo	87.6 MHz.	1988	<a href="http://www.getxo.net">ww.getxo.net</a>
<i>Uribe FM</i>	Gorliz	107.8	1989 <sup>7</sup>	<a href="http://www.uribefm.com/">http://www.uribefm.com/</a>
<i>Irati Irratia</i>	Aribe / Aezkoa	107.7 MHz.	1993	<a href="http://iratiirratia.net">http://iratiirratia.net</a>
<i>Itsuki Irratia</i>	Bermeo	107.3 MHz.	1986	<a href="http://itsukiirratia.bermeon-berton.com/">http://itsukiirratia.bermeon-berton.com/</a>
<i>Karrape Irratia</i>	Leitza	108.7 MHz.	1997	
<i>Mozoilo Irratia</i>	Galdakao	90.0 MHz.	1988	<a href="http://www.euskalnet.net/mozoiloirratia/">http://www.euskalnet.net/mozoiloirratia/</a>
<i>Oiartzun Irratia</i>	Oiartzun	107.0 MHz.	1999	<a href="http://www.oiartzunirratia.org/">http://www.oiartzunirratia.org/</a>
<i>Onda Ribera</i>	Fontellas	107,2 MHz.	1992	<a href="http://www.ondaribera.com">http://www.ondaribera.com</a>
<i>Oñati Irratia</i>	Oñati	107,4 MHz.	1991	<a href="http://www.oinati.eu/servicios-municipales/cultura/breve-historia-de-onati-irratia">http://www.oinati.eu/servicios-municipales/cultura/breve-historia-de-onati-irratia</a>
<i>Radio Municipal de Pamplona</i>	Iruñea	93.7 Mhz.	1986	<a href="http://www.pamplona.es">www.pamplona.es</a>
<i>Radio Rioja Alavesa</i>	Laguardia	102,8 Mhz. 105,8 Mhz.	1987	<a href="http://www.radoriojaalavesa.com/">http://www.radoriojaalavesa.com/</a>
<i>Txolarre Irratia</i>	Billabona	107,6 MHz.	2000	<a href="http://www.txolarreirratia.org">www.txolarreirratia.org</a>
<i>Zirika Irratia</i>	Idiazabal	98.9 Mhz.	1989	<a href="http://zirikairratia.wordpress.com/">http://zirikairratia.wordpress.com/</a>

**Taula 1: gaur egun Hego Euskal Herrian abian dauden udal irratiak**

### Legalitatea

1987an Berango, Gorliz, Loiu, Erandio, Larrabetzu, Ondarroa, Ermua, Leioa, Sondika, Getxo eta Lezamako Udalek eta Durangoko mankomunitateak eskatu zuten emititzeko baimena Jaurlaritzako Kultur Sailaren aurrean; horietako hiruk soilik eskuratuko lukete baimena (Getxok 1997an; Durangok eta Gorlizek, aldiz, 2008an).

Gaurko egoerari dagokionez, hamabi udalek zeukaten udal irratia bat kudeatzeko baimena 2011n EAEn: Arrasate, Oñati, Getxo, Durango, Billabona, Elorrio, Gorliz, Zalla, Karrantza, Turtzioz, Agurain eta Beasain; Balmasedakoak, berriz, 2012ko ekainean egindako udal bilkuran ere erabaki zuen lizentzia bat eskatzea. Biasteritik emititzen duen eta Errioxako Koadrilak kudeatzen duen Radio Rioja Alavesa irratia bere aldetik lizentzia komertzialpean emititzen du. Elorrioko eta Beasaingo irratien emanaldiak eten dira eta Aguraindik ez du irratirik emititzen une honetan.

Nafar Foru Komunitateari dagokionez, zortzi ziren 2010ean emititzeko baimena zuten udalak: Iruñea, Berriozar, Artaxona, Basaburua, Etxarri Aranatz, Fontellas, Leitza, Lekunberri. horiei gehitu behar zaie Aezkoaren Bailarako Batzar Nagusiak kudeatzen duena. Horiez gain, Marcilla (NAO, 1997) eta Corella (NAO, 2008) herriek ere lortu zuten emititzeko lizentzia, irratirik izan zutelako arrastorik ez dagoen arren. Aipatu beharra dago San Adriango udalak irratia-tailerra kudeatzen duela eta Etxarri-Aranatzeko irratia, Esan Erran, itxita dagoela, diru-arazoak direla-eta.

<sup>6</sup> Zartako Irratia izeneko egitasmo moduan sortu zen.

<sup>7</sup> Gorliz Irratia izenez jaio zen.

### *Kudeaketa eta finantzabideak*

Udal irratiei buruzko 1991eko legean udal irratien finantzazioa bikoitza onartu zuen espainiar gobernuak: hau da, udal aurrekontuez gain, publizitatea saldu ahal zuten udal irratiek. Dena den, eta EHUko Iñaki Zabaletak zuzendutako ikerketa taldearen azterketak agerian utzi duenez, publizitateak jasotako diru-sarrerak ez dira aurrekontuen %20ra heltzen, eta udal aurrekontuetan egokiturako diru-partida izan ohi da irradi horien finantzabide nagusia (Zabaleta et al, 2012). Hori dela eta, krisiak eta horrek eragindako murrizketen politikak eragin zuzena izan dute irradi hauetan, eta zenbait kasutan beren biziraupena kolokan jarri ere.

Kudeaketari dagokionez, legeak aukera bi eskaintzen ditu: udalak berak zuzenean kudeatzea bai udal sail baten barruan edo udal enpresa autonomo bidez, edo elkarte edo enpresa baten eskuetan uztea irratia ren gestioa. Getxo Irratia edo Oñati Irratia ditugu gestio zuzenaren adibide argienak. Lehenengo kasuan irratia Komunikazio Sailaren barruan kokatzen da, beste udal argitalpenen edizioa, webgunearen edukien gestioa eta udal prentsa-bulegoaren zerbitzuarekin batera; Oñatiren kasuan, udal langile jardun osoaz eta beste bat erdikoan dira irratia ren bitartekoak. Oiarzun, aldiz, euskararen teknikoaren ardurapean dago irratia. Udal gehienek, berriz, elkarte edo enpresa baten eskuetan utzi ohi dute komunikabidearen kudeaketa, nahiz eta kontrola gobernu-organoetan edo udal bilkuran dagoen. Esan dugun bezala, behin baino gehiagotan udalaren funtzioa elkarte bati instalazioak utzi eta gastu korronteak (argi-indarra, ura...) ordaintzera mugatzen da.

### *Programazioa eta edukiak*

Tokian tokiko informazioa eskaintzea, bertako denda, merkatari eta zerbitzuen berri ematea (informazio zein publizitatearen bidez) zein herrietako pertsonaiak, ondarea edo kultura zabaltzea dira, besteak beste, udal irratien funtzio nagusiak. Izan ere, tokiko irradi horietan hedabide orokorretan –hedadura-eremu handiago hartzen duten horietan- azaltzen ez diren tokian tokiko albisteak, gertaerak, protagonistak... ezagutzera ematen dira dauden komunitatean interesa duten heinean. Era berean, oso tresna baliagarriak izan daitezke bertako administrazioak –Udaletxeak edo Mankomunitateak- aurrera daramatzan egitasmoak ezagutzera emateko, baita beste eragile batzuek egiten dituzten jardunak argitara ateratzeko ere. Ildo horretan, esan genezake, hiritarren parte-hartzea eman dadin informazioa beharrezkoa den neurrian, udal irratiek informazio-funtzio hori bete dezaketela, eta, ondorioz, hiri-partaidetasuna sustatzeko ere bai. Horretaz gainera, irratia k berak historikoko parte-hartzeko bide naturalak eta sinpleak (telefonoa, posta elektronikoa...) eskaini dituela kontuan hartzen badugu, ondoriozta dezakegu udal bizitza aktiboa bultzatzeko bide bihur daitekeela.

Bertako informazioaz aparte, udal irratia k, komunikabide integralak izateko nahian, beste zerbitzu eta edukiak ere eskaintzen ditu: entretenimenduzkoak, kulturalak, kirol-emankizunak..., hogeita lau orduko programazio-parrilla bete arte. Ildo horretan, legeak –bertan behera dagoen 1991ko Udal irradi-hedapenari buruzkoak zein 2010eko Ikus-entzunezko Lege Orokorrak) aukera ematen die udal irratiei bertako ekoizpenetik aparte, beste hornitzaile publikoaren irratsaioak eskaintzea (EITBko edo RNE-ko irradi-programak, esaterako); hala ere ez ditu baimentzen hornitzaile pribatuenak eskaintzeko. Hala ere, araua hautsi zuten, esaterako, Durango Irratia k 2007tik 2009ra tartean Punto

Radio delakoaren irratsaio batzuk eskaintzen zituenean<sup>8</sup> edo Enkarterri Irratiak Onda Vasca delakoaren seinalearekin konektatzen zuenean 2009n akordio batera heldu eta gero<sup>9</sup>.

	Programazio-mota	Programazio propioa	Gainerako irratsaioak
<i>Aralar Irratia</i>	orokorra	4 orduz astelehenetik ostiralera	Informaziorik gabe
<i>Arrasate Irratia</i>	orokorra	Informaziorik gabe	Informaziorik gabe
<i>Begi FM Balmaseda Irratia</i>	musika <sup>10</sup>	7 orduz egunero <sup>11</sup>	musika
<i>Beleixe Irratia</i>	orokorra	Informaziorik gabe	informaziorik gabe
<i>Berriozar Irratia</i>	orokorra	Informaziorik gabe	Informaziorik gabe
<i>Durango Irratia</i>	orokorra	8 orduz <sup>12</sup>	Euskadi Irratia
<i>Enkarterri Irratia</i>	orokorra	8,5 orduz astelehenetik ostiralera	Radio Euskadi
<i>Getxo Irratia</i>	orokorra	45'' egunero	Euskadi Irratia
<i>Uribe FM</i>	musika <sup>13</sup>	8 orduz astelehenetik ostegunera	musika
<i>Irati Irratia</i>	orokorra	7 orduz egunero <sup>14</sup>	musika
<i>Itsuki Irratia</i>	orokorra	24 orduz egunero <sup>15</sup>	--
<i>Karrape Irratia</i>	orokorra	informaziorik gabe	Euskadi Irratia
<i>Mozoilo Irratia</i>	musika	24 orduz <sup>16</sup>	--
<i>Oiartzun Irratia</i>	orokorra	11 orduz astelehenetik ostiralera <sup>17</sup>	Arrosa
<i>Onda Ribera</i>	musika <sup>18</sup>	24 orduz egunero	
<i>Oñati Irratia</i>	orokorra	5 orduz egunero <sup>19</sup>	Euskadi Irratia
<i>Radio Municipal de Pamplona</i>	musika	24 orduz/egunero	--
<i>Radio Rioja Alavesa</i>	orokorra	2,5 orduz egunero	Radio Vitoria
<i>Txolarre Irratia</i>	orokorra	7 orduz egunero	Arrosa / Info 7
<i>Zirika Irratia</i>	orokorra	2 orduz larunbatero <sup>20</sup>	Ez dago informaziorik

**Taula 2: programazioa udal irratietan**

Taulan ikus daitekeenez, udal irrati gehienek programazio orokorra deituriko eskaintzen dute, hau da, informazioa, magazinak, musika, kirola eta beste hainbat eduki sartzen dituzte parrillan eta soilik lauk (%20) irrati-formulan oinarrituriko programazioa dute; horien artean, Iruñekoa, zeinak hari musikala baino ez du eskaintzen egunean zehar. Berezko programazioaren tarte ere ez da berdina irrati guztietan, eta soilik lauk badute 24 orduetako parrilla, errepikapenak eta musika-tarteak (soilik musika) barne. Gainerakoen artean, ezberdintasunak daude eta Getxo Irratiak eskaintzen dituen 45 minutuetatik Oiartzungoak eskaintzen dituen 11 orduetara tarteetan kokatzen dira..., baina gehienetan asteburuetan ez dago saiorik. Zirika Irratian, aldiz, bertako programazioa larunbatetara mugatzen da, eta soilik 2 orduetako saioa eskaintzen du.

Gainerako orduak, esan bezala, beste hornitzaile publikoekiko seinalearekin betetzen dute (Radio Euskadi, Euskadi Irratia edo Radio Vitoria) edo, Txolarre eta Oiartzun Irratian, esaterako, Arrosa irrati ekoizpen-zentroak eskaintako irratsaioak sartzen ditu (ez dute katean emititzen, edo Arrosaren seinalea errepikatzen).

<sup>8</sup> [http://www.elcorreo.com/vizcaya/prensa/20070422/duranguesado/durango-irratia-estrena-manana\\_20070422.html](http://www.elcorreo.com/vizcaya/prensa/20070422/duranguesado/durango-irratia-estrena-manana_20070422.html)

<sup>9</sup> <http://www.deia.com/2009/11/16/ocio-y-cultura/comunicaci%C3%B3n/xabier-lapitz-desde-hoy-en-enkarterri-irratia>

<sup>10</sup> Irrati formula musikala da, nahiz eta tokian tokiko informazioa eskaintzen duten goizeko irratsaioan.

<sup>11</sup> Irratsaioak 7etatik 13etara eta 21:00etatik 22:00etara daude; gainerako denboran musika-tarteak eskaintzen dira.

<sup>12</sup> Zenbatu dugu honen barruan goizeko elkarrizketaren errepikapena

<sup>13</sup> 10etatik 13etara Ondas en la Costa magazinez gain zenbait irratsaio eskaintzen dituzte; hortik aurrera, musika da nagusia.

<sup>14</sup> Bertatik egindako 4 ordu eta erdiko programazioari 14-15 tarteetan Eguzki Irratiaren Pasealeku irratsaioa eskaintzen dituzte eta 17-19:30 tarteetan, berriz, irratsaioen errepikapena eskaintzen dute

<sup>15</sup> Musikak tarte handia hartzen du programazioan.

<sup>16</sup> Musika baino ez.

<sup>17</sup> Arrosa Sarearen bidez beste irrati batzuetako irratsaioak eskaintzen ditu tarte horretan.

<sup>18</sup> Musikak tarte handia hartzen du programazioan.

<sup>19</sup> 2,5 orduetako programazioa gauean errepikatzen da.

<sup>20</sup> Gainerako denboran musika dago 24 orduz egunero.

## Euskararen erabilera

Jaurlearitzak udal irratiei buruz argitaratu zuen dekretuan euskararen erabileraren gutxieneko portzentajea ezarri zen lehenengo aldiz:

*(...) Euskarak gutxienez izan beharko duen agerraldia zehazteko EUSTAT erakundeak urtero argitaratzen duen Euskal Estatistika Urtekariaren azken aleak udalez udal jakinarazten diren datuak erabiliko dira, bertan azaldutako multzo euskaradun jakin guztien portzentajeen batuketaren arabera izanik euskararen gutxieneko erabilera portzentajea. Era berean, gazteei eta hurrei espresuki eskainitako emanaldietan portzentajea gazte euskaldunen kopuruaren arabera ezarri behar zela jasotzen zuen dekretuak. Halaber, euskarazko emanaldi horietan, euskararen irakaskuntzari buruzko edukiak sartzeko beharra azaltzen zuen: (...) tokian tokiko udal euskaltegi homologatuaren bitartez, eta, bestela, euskara irakaskuntza homologatua diharduten Erakundeekin hitzarmenak edo akordioak eginez.*

Paperaren gainean, batzuek normalizaziorako bidean aurrerapauso bat ikusi zuten arren; praktikan, euskarazko emankizunen bazterketa edo menpekotasuna nabaria izan da udal irratien programazioetan ere, eta portzentajeak betetzeko nahiko izan da batzuentzat Euskadi Irratiaren seinalearekin kontaktatzea, bertako programazioa gaztelaniaz garatzen zen arren.

Udal Irratiak	Orotara	Euskaraz	Gaztelaniaz	Elebidunak
Nafarroan	7	4	2	1
Arabán	1 <sup>21</sup>	0	1	0
Bizkaian	7	2	4	1 <sup>22</sup>
Gipuzkoan	5	5	0	0
Orotara	20	11	7	2

**Taula 3: euskararen presentzia udal irratietan**

Herrialdeka, azpimarratzekoa da Gipuzkoan dauden irradi guztiak euskaldunak direla, eta Nafarroan, lau (%57), laurak zonalde “baskofonoan” kokatuta (Leitza, Lekunberri, Basaburua eta Aezkoa Bailara). Araban, aldiz, ez dago euskarazko udal irratirik, nahiz eta saiakera batzuk egon diren halako egitasmoa bultzatzeko, azkena Agurainen sortzeaz dagoen Txindurri Irratia<sup>23</sup>.

## 4. Ondorioak

Oso udal gutxiak garatu dute udal irradi bat. Kontuan hartzen badugu EAEn 251 udal daudela eta Nafarroan, 272; ondoriozta dezakegu oso udal gutxiak erabaki dutela irradi bat izatea (% 3,8). Aipatzekoa da EAEn hiribururik ez duela irratirik kudeatzen; Iruñaren kasuan, irradi bat duen arren, horrek ez du programaziorik eskaintzen, musika-emanaldi jarraitua baizik.

Kudeaketari dagokionez, oso udal gutxiak kudeatzen dute irratia zuzenean (Getxo, Oñati, Oiartzun eta Bermeo); beste batzuek, berriz, enpresa bat kontratatu dute lan hori egiteko (Durango Irratia, esaterako) eta zenbaitek herri-elkarte batek kudeaturiko udal irratia babesa –lokala eta finantzabideak- baino ez diote ematen.

<sup>21</sup> Hemen sailkatu dugu Radio Rioja Alavesa. Aguraingo Udalak baimena duen arren, ez du irratirik kudeatzen.

<sup>22</sup> Elebidun moduan jo dugu Getxo Irratia, nahiz eta bertan egindako “Egun On, Getxo” irratiaioan gaztelania den negusi eta soilik euskaldunei egindako elkarrizketak eskaintzen dira euskaraz.

<sup>23</sup> <http://zuzeu.com/2011/01/17/txindurri-irradiak-irratigintzan-sakontzeko-aukera-eskaintzen-du/>



Ia udal irrati guztiek seinalea aktiboa dute egunero 24 orduz, baina gehienetan berezko programazioa ez da heltzen ordutegi osoaren erdira. Gainerako denboran, EITBtaldeko irrati baten programa eskaintzen ohi dute. Irratsaioen errepikapenak ere ohikoak dira, baita elkarren artean trukaturakoak euskarazko emanaldien artean (Arrosaren bidez edo, Nafarroako irratiaren kasuan, itundako emanaldi bateratuan, emanaldi berezituetan).

Euskararen presentzia oso ezberdina da herrialde batetik bestera; Gipuzkoan udal irrati guztiek euskarazko edukiak eskaintzen dituzte, eta Nafarroan erdiak baino gehiago; Bizkaian, aldiz, gaztelania da nagusi udal irratiaren, eta soilik bik emititzen dute euskaraz. Araban dagoen bakarrak erderazko programazioa eskaintzen du.

## 5. Bibliografia

AMOEDO CASAS, A. (1999). “La estructura de la radio en el País Vasco (1986-1996)”, *Comunicación y Sociedad*, vol. XII, zkia. 1, oo. 21-47.

ACUERDO del Gobierno de Navarra, de 11 de agosto de 2008, por el que se otorga al Ayuntamiento de Corella la concesión para la prestación del servicio público de radiodifusión sonora en ondas métricas con modulación de frecuencia por medio de una emisora de titularidad municipal.

ACUERDO del Gobierno de Navarra, de 11 de agosto de 2008, por el que se otorga a la Junta General del Valle de Aezkoa la concesión para la prestación del servicio público de radiodifusión sonora en ondas métricas con modulación de frecuencia por medio de una emisora de titularidad municipal.

ALBILLO TORRES, C. eta Sanchez Aranda, J. J. ( 1995): *Historia de la radio en Navarra*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.

BOE (1991a): “Ley Orgánica 10/1991, de 8 de abril, de publicidad electoral en emisoras municipales de radiodifusión sonora”, 85, 8478.

BOE (1991b): “Ley 11/1991, de 8 de abril, de organización y control de las emisoras municipales de radiodifusión sonora”, 85, 8479.

BOE (1992). “Real decreto 1273/1992, de 23 de octubre, por el que se regula el otorgamiento de concesiones y la asignación de frecuencias para la explotación del servicio público de radiodifusión sonora en ondas métricas con modulación de frecuencia por las Corporaciones locales”.

EHAA (1994). “Dekretua, martxoaren 22koa, Euskal Autonomi Elkarte Udal Erakundeei frekuentzia modulaturdun uhin metrikoetako irratizabalkunde zerbitzu publikorako baimena emateko modua arautzen duena”, 94065, 3921.

EHAA (1998): “Agindua, 1997ko abenduaren 11koa, Kultura sailburuarena. Honen bidez frekuentzia modulaturdun uhin metrikoetako irratizabalkunde zerbitzurako baimena ematen zaio Arrasateko Udalari”, 1998007, 00656.

EHAA (1998): “Agindua, 1997ko abenduaren 11koa, Kultura sailburuarena. Horren bidez frekuentzia modulaturdun uhin metrikoetako irratizabalkunde zerbitzurako baimena ematen zaio Oinatiko Udalari”, 1998006, 00579.

EHAA (1998): “Agindua, 1997ko abenduaren 11koa, Kultura-sailburuarena. Horren bidez, frekuentzia modulaturdun uhin metrikoetako irratizabalkunde zerbitzurako baimena ematen zaio Getxoko Udalari”, 1998007, 00661.

GUTIERREZ PAZ, A. (1996): “Tokiko irratiak, herri-partaidetasunaren guneak”, *Uztaro*, 18, 41-48.

GUTIERREZ, A. (1990): “«Mungiako Irratia» podría volver a emitir en fiestas”, Egin-Urribaldea, V, ekainaren 27.

GUTIERREZ PAZ, A. (2002): Euskal Irratigintzaren historia, Bilbo, UEU.

IBARRA, J. CARLOS: “Zornotzako udal irratia, <<a cien>>. Primera radio municipal en Vizcaya, realizada por jóvenes estudiantes”. Deia, 22 de junio de 1983.

MESO AYERDI, K.: Komunikabideen gizarte-ereduak. EHU, <http://testubiltegia.ehu.es/Komunikabideen-gizarte-ereduak> (147-162).

MONTERO, P. (1998): “Udal Irratiak EAEn: ahuntzaren gauerdiko eztula”, Euskonews & Media.

NAO (1997): “Erabakia, 1997ko ekainaren 16koa, Nafarroako Gobernuak hartua, Marcillako Udalari frekuentzia modulatu uhin metrikoen soinu-zko irratidifusio zerbiztu publikoaren kontzesioa ematen diona, hamar urtetarako, hura udal titularitateko emisore baten bidez eskaindezan”, 79.

NAO (1997): “Erabakia, 1997ko ekainaren 16koa, Nafarroako Gobernuak hartua, Lekunberriko Udalari frekuentzia modulatu uhin metrikoen soinu-zko irratidifusio zerbiztu publikoaren kontzesioa ematen diona, hamar urtetarako, hura udal titularitateko emisore baten bidez eskain dezan”,

NAO (2002): “Erabakia, 2002ko otsailaren 25ekoa, Nafarroako Gobernuak hartua, Fontellaseko Udalari frekuentzia modulatu uhin metrikoen soinu-zko irratidifusio zerbiztu publikoaren kontzesioa ematen diona, hura udal titulartasuneko emisore baten bidez eskain dezan”, 3.

NAO (2002): “Erabakia, 2002ko otsailaren 25ekoa, Nafarroako Gobernuak hartua, Basaburuko Udalari frekuentzia modulatu uhin metrikoen soinu-zko irratidifusio zerbiztu publikoaren kontzesioa ematen diona, hura udal titulartasuneko emisore baten bidez eskain dezan”-

NAO, 1992ko abenduaren 21eko 431/1992 Foru-dekretua.

ORDEN de 11 de junio de 2008, de la Consejera de Cultura, por la que se otorga concesión del servicio de radiodifusión sonora en ondas métricas con modulación de frecuencia al Ayuntamiento de Beasain. BOPV 11 junio de 2008.

ORDEN de 17 de octubre de 2008, de la Consejería de Cultura, por la que se otorga concesión del servicio de radiodifusión sonora en ondas métricas con modulación de frecuencia a los Ayuntamientos de Durango, Trucios-Turtzioz y Villabona. BOPV nº 217, 12-noviembre de 2008.

ORDEN de 20 de enero de 2010, de la Consejería de Cultura, por la que se otorga concesión del servicio de radiodifusión sonora en ondas métricas con modulación de frecuencia del Ayuntamiento de Salvatierra. BOPV nº 44, 5 marzo de 2010.10.31.

SANTOS DÍEZ, TERESA (2003): “Las emisoras municipales en el País Vasco: Origen y desarrollo”. Ambitos, nº especial 9-10; 2º semestre de 2002-2003 (pp. 401-418).

Sarasola J. (2000): “Ane Lardi: Herriari eman nahi diogu protagonismoa”, Euskaldunon egunkaria, urtarrilaren 12.

ZABALETA URKIOLA, Iñaki; GUTIERREZ PAZ, Arantza; FERRE PAVIA, Carme; FERNANDEZ ASTOBIZA, Itxaso; XAMARDO GONZALEZ, Nikolas eta URRUTIA Santiago (2012): “Funding Sources of Media in Catalan, Basque and Galician Languages: In Search of Sustainability”, in Atiner, Atenas, <http://www.atiner.gr/papers/MED2012-0164.pdf>

-  
-